

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

Arartekoarekin bildu dira Oiangu Bizirik taldeko kideak

Oianguko proiektua legezkota den aztertzeko eskatu diote Iñigo Lamarcarri

MAIDER DEL OLMO

Oiangu Publikoa eta Bizirik plataforma joan den astean herritarren eskubideen defendatzailearekin bildu zen. Bilkuran hainbat eskakizun egin zizkion Arartekoari. Hasteko, Ordiziako Udalak onartutako *Oiangu Aisiagunea* proiektua legezkota den ala ez aztertzeko eskatu zioten; bestalde, baita Udalarari beharrezkoak liratekeen oharrak egiteko ere. Bileran bi ordiziar izan ziren: Edurne Huesa eta Ivan Balerdi. Biek ala biek balorazio positiboa egin dute, Iñigo Lamarcarriekin izandago elkarrizketaren ondoren.

Oiangu Bizirik plataformaren arabera, egitasmoak «irregularitate zantzuak» ditu. Uste horrekin jo dute Arartekoarengana. Lamarcarri esan zenez aztertuko dute proiektua, eskakizunak aintzat hartuz.

«Publikoa izan behar du»

Plataformak parkearen izaera publikoa defenditu zuen Arartekoaren aurrean: «Publikoa eta denontzat izan behar du Oianguk. Eta proiektu honek zalantzan jartzeko izaera publikoa, eremu batzuetara sartzeko jendeak derrigorrez kuartak ordaindu beharko dituelako», azaldu dute plataformako kideak.

Parkea ordiziar eta goierriar askok erabiltzen dute, udan ez ezik baita urte osoan zehar ere. Horregatik, beharrezko ikusten dute bertan edozer gauza egin behar dela ere herritarrei informatzea. Gisako egitasmoetan jendearen parte-hartzea bultzatzea derrigorrezkoa jotzen dute. Alde horretatik Udalarik ez du horretarako «inolak



Iñigo Lamarca Arartekoa Ivan Balerdi eta Edurne Hueso plataformako kideekin. HITZA

borondaterik» erakutsi, haien arabera. «Informazio falta» salatu dute, besteak beste.

Arartekoari, gainera, parkearen kontzesioari buruzko euren kezka agertu zioten. Ikena S.L. enpresari parkearen ustia-

perenerako 40 urteko kontzesioa ematearekin ez daude ados. «Epea neurrigabea» iruditzen zaie, eta, bestalde, susmoak dituzte gauzak ez direla egin legeak eskatzen duen jardunbideari segiz. Horregatik, kontze-

sioa aztertzeko eskatu zuten.

Bestalde, Oiangu Bizirik plataformakoen hitzetan ez dira bateragarriak parkearen egitasmoa eta Udaletik abiatutako Agenda 21. Edurne Huesak gogorazi duenez, «Agenda 21 en oinarrian inguruarekiko errespetua, justizia soziala eta jasangarritasun ekonomikoa daude. Proiektuak ez ditu errespetatzen oinarri horiek».

Egitasmoa bertan behera uzteko eskatu diote Udalarari. Orain arte 2.500 sinadura inguru bildu dituzte. Lan horretan segiko dutela esan dute. Beste ekimen batzuk ere pentsatu dituzte. Jada hasi dira Ordizian auzoz auzo hitzaldiak ematen eta herritarrei proiektuaren inguruan informazioa zabaltzen. Eskuorriak banatu dituzte etxer etxe.

Tabernan hasi dira lanak

Oianguko taberna egokitzeo garbiketa lanak hasita daude, plataformak jakinarazi duenez. Bertan hotela egitea aurreikusten du proiektuak. Ikena S. L. enpresa pribatuak hasi dituela jada taberna eraberritzeko lanak azaldu du Oiangu Bizirik taldeak. Eta salatu egin dute esku-hartze hori. Plataformaren hitzetan, «Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dio oraindik argi berderik eman egitasmoari. Plan Berezia onartu gabe dago. Hori ho-

rrera izanda, ezin dituzte obrak hasi», ohartarazi dute. Udalarari esku-hartze hori «baberstea» leporatu diote eta ez zaie jokabide hori ondo iruditu. Obren hasieraren inguruan kezka agertu dute. Legezko epeak ez direla errespetatzen ari ohartarazi dute, eta neurriak eskatu dituzte: «Udalak ez digu esan obrak hasi behar zituztenik, eta egin behar zuela uste dugu. Guk hala eskatu izan diogu behin eta berriz bildu garenetan. ◀

ORDIZIA ▶

‘Bertso magia’ ikuskizuna izango da gaur Barrenan

Bertsoa eta magia lotzen dituen ikuskizuna eskainiko dute gaur Barrena kultur etxean. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da emankizuna, Alain M. Urrutia magoarekin eta Jon Martin bertsolariarekin. Adin guztietako jendeari zuzenduta badago ere, 13 urtetik gorako gazte txontzat da oso egokia. Euskararen Udal Aholku Batzordeak eta Hitzaro euskara elkarteak elkarlanean antolatzen duten *Ikusi Maku-si* kultur eskaintzaren barruko bigarren emanaldia da.

ORDIZIA ▶

Gurasoentzako haur jolasen ikastaroa, bihar

Haur jolasen ikastaroan parte hartzen ari diren gurasoek bihar bigarren saioa izango dute, ikastaroari amaiera emanez. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera bilduko dira Jakintza ikastolan. Bi ordu iraungo du saioak. Helburua euskara sustatzea da, eta aita-amek euren haurrekin jolasteko hainbat jolas ikastea ere bai.

GABIRIA ▶

San Isidrotako bazkarira joateko izena eman behar

Igandean ospatuko dute Gabiriako baserriarrek San Isidro, zaindariaren eguna. Ospakizunen barruan, bazkaria egingo dute lagun artean, Ostatu jatetxean. Izena emateko gaur da azkeneko eguna, eta Ostatura deitu behar da (943 88 79 13).

LAZKAO ▶

Musika eskolako ikasleen gurasoen bilera bihar

Lazkao Txiki musika eskolako ikasleen gurasoek bilera egingo dute, bihar. Lazkao musika eskolaren oraina eta egoera izango dituzte mintzagai. Arratsaldeko 20:00etan izango da bilera, ikastolaren San Prudentzio egoitzan. Antolatzaileek dei egin diete guraso denei parte hartzera.

ZEGAMA ▶

Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua gaur

Zegamako Aitxuri herri eskolako gimnasioan, gaur, kontzertua eskainiko dute Loatzo musika eskolako ikasleek. Emanaldia arratsaldeko 18:30ean hasiko da. Gisa horretara ekingo diote maiatzeko egitarauari. Hilabete honetarako hainbat irteera antolatu dituzte; hala nola, Donostiako Kursaalera.

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 500 enpresa, ikastetxe, dendak, jatetxe... ita ere guretzat erabiltzen diren guretzat euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza